

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN AURRETIKO FASEA LANKIDETZA MAHAIA

DATA: 2016/05/17; ORDUA: 10:00-11:30

LEKUA: UDALETXEA

UDALA:

Agurtza Zuberua (Berdintasuna)	Jokin Ansorena (Kultura)
Angel Uranga (Hirigintza eta Obrak)	Kike Zinkunegi (Kirolak)
Garikoitz Lekuona (Parte-hartzea)	Kristina Larrañaga (Enplegua)
Iñaki Lasa (Gizarte Zerbitzuak)	Merkataritza)
Iñigo Muñoz (Ingurumena)	Nerea Cereceda (Gazteria)
Jexux Peñagarikano (Euskara eta Zerbitzuak)	Oihana Hernaez (Azokak, Turismo eta

LAGUNTZA TEKNIKOA: Ana López eta Eider Larrañaga (Enea)

GAI ZERRENDAA

1. PROIEKTUAREN FASE NAGUSIAK ETA EGUTEGIA
2. TOLOSAKO ARGAZKI PARTEKATUA
3. HAUEK DIRA DATUAK
4. HAU DA HERRITARREN PERTZEPZIOA
5. ONDORIOEN LANKETA: INDAR IDEIEN BILA

LABURPENA

1. PROIEKTUAREN FASE NAGUSIAK ETA EGUTEGIA

Iñigo Muñoz, Udaleko teknikariak, ongietorria ematen die bertaratutakoei eta, bileraren helburu nagusia azaldu du.

Jarraian, Eider Larrañagak, Enea aholkularitza taldea, proiektuaren fase nagusiak azaldu ditu, orain arte egin diren lan nagusiak gogoraziz:

- **Diseinu fasea:** Zenbait herritarrez osatutako taldearekin (Taldea sustatzailea) lan egin da batez ere. Fase honetako emaitza nagusiak ondorengoak izan dira:
 - Prozesu honi dagokion parte hartzea gidatuko duen **parte-hartze irizpideak** adostu ziren. Talde sustatzailean lehen proposamena landu ondoren, parte-hartze irizpideak politikariek (Jarraipen Batzordea) landu ziren baita ere,

beraien ekarpenak jasoz. Politikarien ekarpenak jasota, irizpideak talde sustatzailean berriz ere landu eta adostu ziren.

- Herritarren parte hartzea artikulatuko duten **gaikako mahaien** antolaketa: talde sustatzailean, eta lanketa eta hausnarketaren ondorioz, mahai sektorialen izena eta bakoitzean landutako gai orokorrak adostu dira. 4 mahai sektorial antolatu dira: *Pertsonak* (bazterkeria, umeak, gazteak eta 3. adina, emakumeak, ...), *Kultura eta hezkuntza* (ekipamenduak, eskaintza,...), *Ingurumena eta Lurralde antolaketa* (ingurumen baliabideak, hondakinak, landa eremua, ibaia, lurralde antolaketa,...) eta *Ekonomia* (sektore ekonomikoak, azokak, merkataritza, garapen ekonomikoa, turismoa, langabezia,...)
- **Diagnostiko fasea:** Udalerriaren egungo egoera partekatua osatzea da fase honen helburua. Arlo honetan burutu diren zereginak:
 - Udal **teknikariekin bilera** espezifikoak egin dira, informazioa jaso eta arlo bakoitzeko interes guztiak identifikatzeko.
 - Iturri desberdinetan dagoen (Udala, Eustat, Lanbide,...) **informazio eta datu objektiboak bildu** dira.
 - **Herritarren ekarpenak/ikuspegia** jaso da. Ekainean zehar Topagunean herritarren iritzia jasotzeko 4 saio egin dira. Honetaz gain kalean “stand” bat jarri da eta web eta posta elektronikoaren bidez ekarpenak jasotzeko bideak jarri dira baita ere.

Bildutako informazio guztia oinarri hartuz, Tolosako argazki partekatua osatuko da.

2. TOLOSAKO ARGAZKI PARTEKATUA

Tolosako argazki partekatua osatzeko, goran aipatu bezala, ekainean zehar Topagunean herritarrei zuzendutako **4 saio** burutu dira, saio bakoitzean arlo konkretu baten inguruko gaiak landu direlarik: **Pertsonak, Kultura eta Hezkuntza, Ingurumena eta Lurralde Antolaketa** eta **Ekonomia**.

Parte hartzearen inguruko datu orokorreki dagokionez, denetara 46 pertsona desberdinek parte hartu dute modu presentzialean, gehiengo zabal batek (%76) talde edo erakunde baten ordezkari gisa parte hartu duelarik.

Generoari dagokionez, emakume eta gizonezkoen parte-hartzea nahiko parekatua izan bada ere, gizonezkoen presentzia zertxobait altuagoa izan da (%54).

Aurrez-aurreko saioez gain, jardunaldien ospatzearekin batera, kalean herritarren ekarpenak jasotzeko “stand” edo gunea jarri da baita ere. Honetaz gain, Udaleko web gunean ekarpenak egiteko gunea aktibatu da eta zenbait pertsonak posta elektronikoaren bidez helarazi dute beraien ikuspegia.

3. HAUEK DIRA DATUAK

Iturri desberdinetan jasotako informazio eta datuak aurkeztea aurreikusita bazegoen ere, hauek guztioi ez azaltzea adostu da, ondorengo taldekako lanketan bakoitzari dagozkion datuak

azaltzea egokiagoa dela iritiz.

4. HAU DA HERRITARREN PERTZEPZIOA

Herritarren saioetan jaso diren ekarpen nagusien azalpena egin da eta hauen inguruan teknikariek dituzten zalantzak argitu dira:

PERTSONAK: Ez da arlo honen inguruko zuzenketa/ekarpen/oharrik jaso.

KULTURA ETA HEZKUNTZA:

“Erabilera anitzak ahalbidetuko lituzkeen ekipamendu egoki baten beharra dago, non tamaina eta mota ezberdineko ikuskizunak antolatu daitezkeen”. Esaldi honen inguruan eztabaida sortu da. Jokin Ansorena herritarren mahaian egon zen eta bere ustez, esaldi honek ez du argi islatzen bertan aipatutakoa. Ekipamendu berrien beharra baino, gaur egun daudenak erabili ahal izateko erraztasunak jarri beharra aipatu zela azaldu du eta horrela jartzea adostu da.

Jesus Peñagarikano, euskara teknikariaren esanetan, euskararen erabilerearen inguruko datuak direla eta, berauek hobetzeko ahaleginak egin behar dira, ez mantentzea soilik.

Gariquitoz Lekuonak aipatu duenez, nahiz eta aurrez-aurreko saioetan hezkuntza gaia ez den herritarrek aipatu duten gaia, posta elektronikoko bidez honen inguruko ekarpenak jaso direnez, berau ere jartzea eskatu du.

INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA:

Lehen puntuak birgaitzeari buruz hitz egiten da eta azken esaldian *“beti Tolosaren identitatea eta izaera errespetatuz”* egin beharko litzatekeela aipatzen da. Herritarrekin egindako bileretan puntu hau garapen berriei lotuta aipatzen zela komentatu da eta beraz, horrela zehaztea adostu da.

Landa auzoen inguruko ekarpena dela eta, bertan egon ziren Angel Uranga eta Iñigo Muñoz teknikarien ustez, ez da ondo islatu bileran sortu zen eztabaida eta esaldia aldatzea proposatzen da ondorengo jarritz: *“Landa auzoei dagokienez, berauen etorkizunari buruzko hausnarketa beharrezkoa ikusten da”.*

EKONOMIA:

Turismoari buruz hitz egiterakoan Donostiarekin elkarlanaz gain, beste eskualdeekin elkarlana sustatu beharko litzatekeela jasotzea adostu da.

Tolosan Merkataritza, turismo eta azoka mahaia osatua dagoela eta bertan landutakoak ere prozesu honetan txertatzearen beharra aipatu da. Honen harira, Hiri ekonomiaren Plan estrategikoa egin da eta berau Plana osatzerakoan kontutan hartu beharko dela esan da.

Industria alorrean, papergintza atzean uzten joan behar dela komentatu da, arlo berriak uztartuz eta papergintza beharbada turismoarekin batera landu ahal izango litzateke.

Langabeziaren inguruan eta lan motari eta formakuntzarekin lotuta, zenbait arlotan eta konkretuki Lanbide Heziketan neskekin, zein arrazarekin aurreiritziak daudela aipatu zuten herritarrek eta hori ez da jasota geratu. Beraz, aipamen hori ere gehitzea adostu da.

5. ONDORIOEN LANKETA: INDAR IDEIEN BILA

Herritarren ekarpenak ezagututa, ondorengo pausua hurrengo faseetan osatuko den planaren indar ideiak identifikatzea da, zeintzuek etorkizuneko erronkak eta plana osatzeko gida-lerroak izango diren.

Honetarako teknikariak 4 taldetan elkartu dira, diagnostikoaren eta herritarren mahaien oinarri izan diren gaien arabera (Pertsonak, Kultura eta Hezkuntza, Ingurumena eta Lurralde Antolaketa eta Ekonomia). Talde bakoitzean diagnostikoa osatuko duten datuei buruzko informazioa utzi zaie, datuak eta herritarren saioetan jasotako informazioa oinarri hartuz, teknikari bezala etorkizunari begira arreta guneak/ gaiak identifikatu dituztelarik.

Hauek dira talde bakoitzean identifikatutako indar ideiak:

PERTSONAK

Bazterkeria eta pobrezia:

- Gizarte zerbitzuak herritarrei gerturatu behar zaizkie eta estereotipoekin amaitu.

Emakumeak:

- Emakumeen jabetza eta autonomia indartzea lehentasunezko gaia da, baita maskulinitate eredu berriak sustatzea ere. Honetarako tresna, ekipamendua sortzea da.
- Bizitza pertsonala eta soziala uztartzeko kontziliazio politikak martxan jartzea.

Haurrak, gazteak eta 3. adina:

- Haur eta gazteen parte-hartze eredu berriak sortu behar dira, hauek ahalduzko eta beraien ahotsa entzuteko. Hau lortzeko tresna ekipamendu egokia eskaintzea da.

KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ekipamenduak:

- Orokorrean ekipamenduen erabilera aztertze beharra dago, kontuan izanik beraien funtzioa egoki bete ahal izateko baliabideak behar izango direla (ez bakarrik ekonomikoak, baita giza baliabideak ere)
- Ferial espazioaren inguruko hausnarketa egin beharko litzateke, gunearen erabilpena hobetzeko (agendak, kudeaketa,... besteak beste).
- Ekipamenduak hobetze aldera, beharrezkotzat jo da bai Kultur etxearen gaurkotzea, baita beste espazio batzuk irisgarriagoak egitea ere.

Kultura eta kirola (zerbitzua eta eskaintza) :

- Eskola kilora ereduari behar duen garrantzia eman behar zaio eta berai ez galtzeko mekanismoak jarri behar dira.

INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

Hirigintza eta erreka:

- Orain dagoenaren birgaitzeari lehentasuna eman behar zaio. Eta ez bakarrik hiri espazioari dagokionez, baita industria eremuen kasuan ere. Adibidez Usabal-en kasua edo Donostia hiribidea espazio publiko gisa berreskuratuz. Birgaitze honen inguruan, kontutan hartu beharko da herria Oria ibaiari begira berrantolatzea, Zumardi txikia espazio berde gisa berreskuratuz.
- Hiri edo auzoak beroneratzean Tolosaren identitatea eta izaera zaintzea beharrezkoa da.

Landa eremua eta nekazaritza:

- Landa lurren artean Udal jabegoa duten lurren inbentario ona egitea lehentasunezkoa da.
- Lur bankuak sortzearen inguruko hausnarketa egin behar da, gazteak nekazaritzara hurbiltzeko tresna gisa.

Ingurumen kalitatea:

- Airearen kalitatean eta klima aldaketan eragin nabaria duen faktore nagusietako bat trafikoa izanik, hiri barruan berau gutxitzeko neurriak jarri behar dira.
- Tolosa egiten ari den zarata mapa oinarri hartuz, bertan jasotako arazoei aurre egiteko definituko den ekintza plana gauzatzea ahalbidetu.

Klima aldaketak bi ildo nagusi daude:

- **Arintzea:** Klima aldaketa eragiten duten gasen isuriak arintzeko neurrietako bat udal ibilgailuen flota kotxe elektrikoengatik ordeztzen jarraitzea izan behar da, baita kotxe partikularrena ere. Beste neurrietako bat, birgaitzeetan (posible den kasuetan) irizpide energetikoak baldintza bezala jartzea da.
- **Egokitzapena:** Klima aldaketara egokitzeko plan bat egitea, arriskuak identifikatuz edo bestela arrisku handienak identifikatu eta neurriak hartu.

EKONOMIA

Merkataritza:

- Eskaintza desberdinu edo posizionatzeko lan egin behar da, merkatal zentro handiei aurre egiteko. Honetarako gai desberdinak jorratu beharko lirake: erosketa joera berrietara egokitu, ordutegien inguruko hausnarketa,...
- Kale komertzial biziak eta giro komertziala dutenak izatea garrantzitsua da. Honetarako kontutan hartu beharko da lokal hutsen egoera eta estetika baita ere.
- Belaunaldi aldaketarekin dauden arazoei heldu behar zaio.

Azokak:

- Lehentasunezkoa da azoken jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna bermatzea, Merkataritzako ikur izan baitaiteke eta bestalde, 1go sektorearen traktore baita eta turismoa erakartzeko aktiboetako bat. Bi planotan lan egin behar da:
 - Erosleak: beharrezkoa da erosle berriak erakarri eta gaztetzea, belaunaldi aldaketa baimenduz.
 - Ekoizleak: eskaintza berri eta erosketa ohitura berrietara egokitu behar dira, horretarako laguntza eman beharko zaielarik. Hala ere, gaur egun ekoizle berriek dagoeneko beste eredu batzuk ere sustatzen dituzte.

Industria:

- Industria arloan gune berriak sortzen ari dira eta hauen beharrei erantzuteko formakuntza behar da.
- Papergintza sektoreak Tolosan izan duen esperientzia ekintzailetzaren ikur eta ikasgai gisa aprobetxatu behar da, gaur egungo arlo berriak garatzeko.
- Egungo industria sektorea "bienes de equipo"-ri lotuta dago eta berau jorratu beharko litzateke.
- Gastronomiarekin lotutako industria jorratzea interesgarria litzatekeela aipatu da.
- Babestutako lana ("empresas de inserción laboral") sustatu behar da.

Garapen ekonomikoa eta Turismoa:

- Garapena ezin da edozein preziotan egin eta eredu berriak uztartu behar dira.
- Tolosa inbertsioa ekartzeko (industrian, zerbitzuetan,...) erakargarri bihurtzeko lan egin behar da.
- Turismo arloan kanpor irten edo ateratzea beharrezkoa da. Egiten dena saldu behar da.